



ii.7. Arazleak: *eragin* (v *arazi*)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Arazleak: *eragin* (v *arazi*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=20&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, arazleak

Deskribapena

12. kapituluaren ikusi dugun bezala, euskarak arazle analitiko, morfologiko zein lexikoak baditu ere, morfologikoak dira emankorrenak eta zeresan handiena eman dezaketenak.

Arazle morfologikoak aditzoinari (oro har ekialdean) edo partizipioari (oro har mendebalean) morfema bat gaineratuta eraikitzen dira, morfema arazlea, hain zuzen ere (Ortiz de Urbina 2003b: 593). Morfema hori, ordea, ez da berbera hizkera guztietan: hizkera batzuek *arazi* darabilte, beste batzuek, aldiz, *eragin*. Morfema honi dagokio atal honetan deskribatuko dugun txandakatzea.

Eredu orokorraren arabera, morfema arazlea *arazi* da (1). Morfema honek, ordea, zenbait alomorfo ditu, euskalkien arabera aurki daitezkeenak: *erazi*, *arazo* edo *arazotu*, besteak beste. Hizkera eremuan, berriz, *eragin* morfemaren bidez sortzen dira egitura arazleak (2).

(1)	Nik	Joni	liburua	irakurrarazi	diot
-----	-----	------	---------	--------------	------

	ni.ERG	Jon.DAT	liburua.ABS	irakur.arazi	(3ABS).edun.APPL.3SG.DAT.1SG.ERG	
(2)	Nik	Joni	liburua	irakur	eragin	diot
	ni.ERG	Jon.DAT	liburua.ABS	irakur	eragin	(3ABS).edun.APPL.3SG.DAT.1SG.ERG

Arazik zein *eraginek* -*ra*- artizki zaharra barnebiltzen dute. Artizki honen bidez sortutako aditzak arazle lexikoetan kokatzen ditugu gaur egun, artizkia ez baita emankorra dagoeneko. Garai batean, ordea, artizki hau zen arazle morfologikoak sortzeko euskarak zuen mekanismoa. Hortik datoz, besteak beste, *ibili* vs *erabili* edo *ekarri* vs *erakarri* bezalako bikoteak.

Gaur egungo arazle morfologikoak sortzeko erabiltzen diren bi morfemek, esan bezala, artizki hau daukate. Haien jatorria, ordea, ezberdina da. Izan ere, *araziren* kasuan ez dago oso garbi zein den jatorrizko erroa, eta sortutako morfema ez da aditz independente baten baliokidea gaur egun. *Eraginen* kasuan, aldiz, *egin* da jatorrizko erroa, eta sortutako morfemak aditz independente gisa ere joka dezake (Ortiz de Urbina 2003b: 593).

Dena den, bi eredu hauen artean aditzaren forma baino ez da aldatzen. Hau da, bi morfemek aditz laguntzaile berberak hartzen dituzte eta berdin jokutzen dute perpausean.

Datu-basearen emaitzak

Banaketa geografikoari dagokionez, esan daiteke ezaugarri honen banaketa nahiko gardena dela. Ekialdeko eta erdialdeko euskalkiek eredu orokorra jarraitzen dute. Hizkera erdua, berriz, mendebal zabalean lekukotzen da. Ereduen arteko muga Azpeitia (hizkera erdua) eta Beizamaren (eredu orokorra) artean kokatzen da emaitzen arabera. Salbuespen bakarra Bizkaiko Artea herrian aurkitzen dugu, bertan ez baita hizkera erdua lekukotzen.

Aipamenak

Ortiz de Urbina, Jon. 2003b. «Causatives». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 592-607.